

Mallabiako herri-jakintzaren zenbait azterren

I. PROBA-HARRIAK

Sarrera

Hainbat estudio egin izan dira euskal deporteen gainean, eta, arazo hau tratatzen denean, gehienetan esan ohi da, euskal deporteeek eguneroko bizitzan dutela beren sorlekua. Kasu konkretu bat jartzearren, entzun dezaiozun Gaztañagari: «Gure aurreko euskaldunek eguneroko lanetik atera zituztela jolas eta jokuak, edo laneko beren trebetasunak jolas eta joku biurtu zituztela? Garbi azaltzen digu ori Iriarte'k, batez ere, aizkora-jokuari dagokionez»¹.

Baina, guk arakatu nahi dugun arlo honetan behintzat, ez du, uste dut, inork estudiatu izan «eguneroko lan» hori. Ba dira, bai, esan dugunez, idi-probak estudiatzen dituztenak, edo gutxienez aipatzen², baina ez eguneroko lanetan zelan eta nun sustraitzen diren.

Idi-demen joko hau lehenengoz aipatzen duena Iztueta da. Bere textoak, bada, aurrena izatearren, berebiziko balioa du eta irakurri eginen dugu: «*Idi-apustuac*. Guzizco-eresia dute Guipuzcoatarrac idi-tema oetara. Urte guzietan izan-oidira, oncarri edo interes-andico joca-aldia Anitz-bide icusi-ditugu ogueña onza-urreco apustuac, eta gañera milla-ochiñean igarotzen-diraden trabesac. Diru multsu andi oecguziac izaten-dira, gendalla necatzallearenac.

1 GAZTAÑAGA, J., *Itzaurrea*, in IRIARTE, J. L., *Gure Erri-Joku Nagusiak*. Donostia Ed. Etor., 1973. 9 o.

2 Ikus, esaterako: CARO BAROJA, J., *De la vida rural vasca*. San Sebastián, 1974. (2.ª ed.). 227 orrialdean, "Diversiones para muchachos y muchachas" dakarren arren, ez du harrion deporterik aipatzen. Berdin, 83 gn. eta urrengo orrialdeetan ere, "La labranza" gaia estudiatzen duenean ere, ez du harrion existentziarik seinalatzen. Berdin gertatzen da bere *Los pueblos del Norte* liburuan. San Sebastián. Ed. Txretoa. 1973. (2.ª ed.). Baina, *Los Vascos* liburuan, (Madrid. Ed. Istmo (2 tirada). 1972.) bere 153gn. orrialdean honela dio: "Parece probable que experiencias de resistencia y las conocidas pruebas de bueyes ("idi-apostuak") hayan servido en tiempos no muy lejanos para modificar sensiblemente los yugos vascos".

Eta ESTORNÉS LASA, B., 'k ere ba dio: "*Idi-dema*, pruebas de bueyes mediante el arrastre por una pista especial de una piedra de 3.444 kgs. dotada de una anilla de enganche haciendo el mayor número de vueltas de un lado a otro, en un tiempo prefijado. En ocasiones excepcionales se probaron caballos y aun hombres. En Guipuzkoa, cuatro hombres han solido ganar a la mejor pareja de bueyes". (*Estética Vasca*. Buenos Aires. Ed. Ekin. 1952, 105 o.

ANGEL ZELAIETA

Uztar idi-aldia batec erabili izan ditu 70-kintal-andi arrastean, zeñean diraden 420 arroba: baita beyac ere 360. Beragatic dute Guipuzcoatarrac chit-beroitza-andico griña, abelgorriac ain ongui bazcatzeco. Ezta urte-asco guizendu zuela Ernani'n Ignazio Goicoecheac, bere bear-gai guziac eguiten ziozcan idia, pissatu izan-zituena aragui garbitan, 1.070 libra, eta 230 peita edo zebotan. Aditu-izan-diotet guizon jakintsun arraraco diraden anitzi baldiñ idi au izan baliz ezurraz ain andia, nola Franziac zembait, pissatuco zituela 1.880 libra.

Oraic dalaric 30-urte guchi-gora beera, jocatu-zuten Billarrealen 20 guizonec, uztar idi aldiaric onenaren contra tiraca; baita irabazi-ere. Beasaingo Leundac eraman zituen ordu-erdi baten barruan, bere errico plazatic, Billafrancaco ezcaraz edo portalera, amar-anega gari, gurdi batean tiraca, zeñean irabazi-izan-zuen ontza bat urre, apus tu berean. Icusi det Azpeitian, Abitaiñ esaten zaion baserri bateco mutilla, planaren goenetic barrenerañño bizcarrean eramaten 24 arroba burni.

Elgoibarco anai-arreba batzuec jaso-izan-zituzten orai sei urte zortzi anega gari, onza bat urre apustura eguñic, lurretic lepora lau anega-ta-erdi anayac, eta iru-ta erdi arrebac»³.

Baina, esan dugunez, ez dira idi-apostu horiek gure ardurapeko orain. Estudiatu nahi ditugunak, orain, J. M. Barandiaranek aipatzen dituen honako harri hauk dira: «Hay piedra de pruebas, aparte de en las plazas de los pueblos, en planicies delante de ciertos caseríos, como en Urigoiti (Orozco), o en montañas como en el alto de Arrieta (Oyarzun) y en Probazelai (monte Oiz)»⁴.

Lehendabizi, Mallabian aurkitu izan ditudan harri guztien zerrenda ematen dut. Era berean, harri bakoitzaren gainean jaso dudan informazioa nork eman didan eta ze etxetakoa den. Honetara, irakurleak argintasun gehiago ukan nahi badu, ikus dezake, ondoan jartzen dudan taulan, harri bakoitzaren eta informantaren zituazio jeografikoa.

Toponimia arazo batzuek ere agertzen direnez gero, beste argitasun batzuek ere ematen ditut, baina folio-barrenean.

³ IZTUETA, J. L., *Guipuzcoa'ko Dantzak*. Bilbao. Ed. La Gran Enciclopedia Vasca, 1968. 356-357 o.

⁴ AGUIRRE FRANCO'k zitutua, *Juegos y Deportes Vascos*. San Sebastián. Ed. Añamendi, 1971. 363 o.

Harrien relazioa

1. *San Migueleko* ermitearen zelaian.

Karatxa. Kate-zulo bi. 1.200 bat kilo.

«Lehen, ganaduen hermandadea birritan elkartzen zen San Miguelen: Sanesteban egunez, neguan, eta Sanpedro egunez, udan. Egun hauetan bereziki, aproba asko egiten ziren. *Maloneko* sastagiraino joan eta etorri izaten zen aprobada normala... Ez diot inoiz eta inori ere entzun izan norik egin edo ekarria den.» (LEONZIO URIZAR, 79 urte. *Ibar-garaikoa*.)

«Neure akorduan ere erabili izan dugu harri hau idiak probarako preparamatzeko.» (DAMIAN GUIASOLA, 54 urte. *Eskiñekoa*.)⁵

2. *Egiko* etxaburuan⁶.

Karatxa. Kate-zulo bat. 500 bat kilo.

«Nere akordu guztian lurpean enterratuta antzera egon izan da, hor, gure etxe-ondoan... gure mutilek eta handikoek atera, ganaduei lotuta buelta batzuk eman eta etxe-burura altzatu zuten. Ez dut inoiz ere entzun izan ezertarako erabili denik.» (SANTIAGO ASTARLOA, 51 urte. *Egikoa*.)

3. *Ibar-Goitiko* etxaurrean⁷.

Karatxa. Kate-zulo bat. 400-500 bat kilo.

«Ganaduak aprobatzeko erabiltzen zen. *Zaintzeko*⁸ behi bat, akordatzen naiz zelan erabili zuten berari lotuta. *Zeperiño* zenak ere harri horretxekin aprobatu zituen bere idi-turangoak, gero probara, plazara, joateko.

Gero, *Ibar-Goiti* Santiago Pérezek erosi zuenean, eskonbrera bat egin zuen eta bertan enterratu gure harri hau ere. Neuk, esan ere egin nion ia harriarekin zer egin zuen.

5 Etxe honen izena, propietade-eskriturretan agertzen dena, *Eleixaldebeti* da. Iturrizaren esku-eskribuan, ostera, *Ciquina* jartzen duela uste dut. Lino AKESOLO'k ostera, *Esquena* eta *Esqueria* irakurtzen du. Conf. ITURRIZA, *Antigüedades de Vizcaya*. Bolibar, 1779. (Markinako aita karmelitanoen liburutegian aurkitzen den esku-eskribua). Herriko berbetan, ostera, *Eskiñe* deiturarekin ezagutzen da.

6 *Eguia*, conf.: LABAYRU, E., *Historia general de Señorío de Bizcaya*. Bilbao. Ed. La Gran Enciclopedia Vasca. 1968. t. IV. 333 eta 334 o.

Eguija, conf. ITURRIZA, op. cit.

Egixe, herriak.

7 *Ibargoitia* ITURRIZA eta LABAYRUK.

Ibergoittixe, herriak.

8 *Cereinza* ITURRIZA eta LABAYRUK.

Zaintze, herriak.

ANGEL ZELAIETA

—Bah!, —erantzun zidan—, hor gelditu da lurpean... zertarako balio zuen, bada!...

—Zertarako balio? ...heurea uan ala?» (LEONZIO URIZAR, 79 urte. *Ibar-garaikoa.*)

4. *Artiako zelain*⁹

«Ba zen harri txikitxoren bat *Artixe* ondoan ere, txikitu eta hormagintzan edo enpleatua....» (LEONZIO URIZAR, 79 urte. *Ibar-garaikoa.*)

5. *San Jorgeko* ermitearen zelaian¹⁰.

Karatxa. Kate-zulo bat. 600 bat kilo.

«Ganaduak probatzeko erabiltzen zen, ia zelan zegoen ikusteko. Buztarrri berria egiten zenean, zelan gelditzen zen probatzeko ere bai. Dana dala, nere akordu guztian behintzat, ez da berorrekin jokorik egin izan. Duela zenbait urte, bideko zulo bat estaltzeko enplegatu genuen... ez negoen ni horretan konforme baina....» (JOSE MARIA ZUBIATE, 56 urte. *Aurtenetxekoa.*)

6. *Arandoñoko* ikaztegi zuloan¹¹.

A. Karatxa. Kate zulo bat. 400 bat kilo.

«Idiak eta behiak probatzeko erabiltzen zen. Era berean, ganadu berria erosten zenean, ia indarrez zelakoa zen, ze planta zuen eta exhibitzeko ere; nor gehiago zen probatzeko ere erabiltzen ziren. Ganaduak hezteko ere erabiltzen zuten, eta probarako preparatzeko ere erabili izan dira.

Joan-etorri obligatua *Goitti*¹² baserrira arte harria altzatu eta berriz ekartzea izaten zen.»

7. B. ZIKOIÑEA. Kate-zulo bat. 800 bat kilo¹³.

«Bigarren honek, kanpotik hare- harria dirudian arren, barrutik zikoïña izanen da. Lehengoaren finalidadea izanen zuen, baina ganadu fuerte-

9. *Artija* ITURRIZAK, *Artixe* herriak, eta *Artiaga* "Privilegio dado a la Villa de Ermua... 1410" ean in ITURRIZA, H. *gral. de Vizcaya y epitome de las Encartaciones*. Bilbao. 1967. t. II. 229 o.

10. *San Jurji* herriak.

11. *Arandoño* ITURRIZAK eta LABAYRUK, baña *Aiñiño* herriak.

12. *Arandoño*goitia LABAYRUK, eta *Aradoño* Goitia ITURRIZAK.

13. *Zikoïnea* hitzak usadioa normala eta arrunta du Mallabian. Alare ez dut ikusten AZKUEREN *Hizteqian*. Hare-harriaren kolore berdina du azalez, esan didate Mallabitarrek, baina hura baino gogorragoa eta astunagoa da.

txoagoekin erabiliko zen. Gure idiak ere harri honetxekin preparatu izan dira probarako. Ez diot egundo inori entzun izan noiz eta nork eginak diren.» (DOROTEO MILIKUA, 79 urte. *Etxekonekoa*.)¹⁴

8. *Trabakuako* proba-harria¹⁵.

Karatxa. Kate-zulo bat. 500 bat kilo. Burnizko eldu- lekua.

«Azken urteotan, harri hau bai *Gerengan* eta bai *San Juanen* erabili izan da, asto-probetan eta gizon-probetan. Eldu-lekua bera ere gerriarrek jarria omen da. Bere azpiko partean dituen sei zulo antzekoak, palanka-jokoan edo eginak izanen dira.» (GREGORIO ARANBURU, 65 urte. *Apoittekoa*.)¹⁶

(Harri hau, memento honetan, *San Juan*¹⁷ deitu ermitearen ondoan dago.)

9. *Goittako* etxaurrean¹⁸.

Karatxa. Kate zulo-bat. 400 bat kilo.

«Harri hau, nik neure aita zanari entzunda dudanez (MARTIN GALLASTEGI, 1882-1974), ganaduak hezteko erabiltzen zen, hezitako beste bateri lotuta eta hola.

Era berean, behia zezenarengana eramaten zenean, ondo gelditu zedin —izorratuta, alegia—, harri honeri lotzen omen zitzaion, izerdia atera arazi arte.

Gure aita zenak esaten zuenez, bereziki negu partean, kopradiko jendea hor biltzen omen zen, harriaren inguruan, eta aprobadak egiten omen ziren, ia nor gehiago zen... Andrak ere, han egoten omen ziren begira, goruak eskuetan zituztelarik...

Behin batez, kontatzen zuen gure aita zenak, gizon batek bere ganaduak ere, harriari lotu nahi omen zizkion eta bere emazteak oihu egiten omen zion: "Kuida gero!, ez duzu gero gaur gure ganadurik lotuko!..."

Proba edo tema hauetan, berriz, *Otsone*¹⁹ diogun etxaurreko aldatzean gora bixkorren eramaten zuena izaten omen zen kanpeoia.

14 *Etxegoena* propiedade eskriturretan. *Etxekone* herriak. Ez dakarre ITURRIZAK eta LABAYRUK.

15 *Trabakue*, herriak. *Arrangiz-gana*, AGUIRREREN nobelan, *Kresala*. Oñate. Ed. Franciscana. 1969. (5gn. edizioa). 219 o.

16 *Estivaliz de Apoita* LABAYRUK, *Apoita* ITURRIZAK, *Apoitte* herriak.

17 *San Juen* herriak.

18 *Goitana* LABAYRUK eta ITURRIZAK. *Goitta* herriak.

19 *Otsone* herriak, *Goitana de Suso* (?) LABAYRUK.

ANGEL ZELAIETA

Harri hau, azkenengoz *Otsonek* (Domingo Landak) eta *Longak* (Elías Antxiak) probea jokatu zutenean erabili zen, nik uste. Gero, norbaitek apurtu eta nunbaiten hormagintzan edo sartu dute.» (MARTIN GALLAS-TEGI, 60 urte. *Uxartekoa*.)²⁰

10. *Urkixako* etxaburuan²¹.

Karatxa. Kate-zulo bat. 200 bat kilo.

«Harri txikitxo bat zen. Ez eukan zulorik eta neuk egin nion, gazte-gaztea nintzenean. Horretxekin hezten genituen ganaduak, bereziki artajorran ganoraz egiten ikas zezaten. Baita artoa ereiteko iladak zuzen egin ahal izateko ere. Afezio handia nuen nik ganaduak ondo hezten... Buztarrian ibiliten ikas zezaten ere horretxekin erabiltzen nituen. *Goi-Herriko Donegarai-etxebarriko*²² Markos zena zen gizon prestua ganaduak eta hezten... horigatik izaten zituen hark, beti, ganadu ondo heziak.

Zezenarengana behi umeskea eraman ondoren, ostera, ez nituen harri horretan lotzen, idiarekin buztartuta, zazpi- hortzari baino.

Gero, gauzak asko aldatu dira, eta, nola harri horrek ez zigun serbitzen, horman sartu nuen.» (TORIBIO GISASOLA, 80 urte. *Urkixakoa*.)

11. *Donegaraiko* itur ondoan²³.

Karatxa. Kate-zulo bat. 400 bat kilo.

«Harri hori, nik uste, Ignazio Urkidik erabili zuen azkenengoz. Probarako afezio handia zuen hark. Ganaduak hezten zirenean, nahiz saltzen, nahiz erosten... probatzeko erabiltzen zen. Nere akorduan, horregaitio, ez da jokorik egin izan berorrekin. Ez dakit norik egina zen, eta nere aurretikoei ere ez diet holako notiziarik entzun izan.» (EUGENIO SOLOZABAL, 78 urte. *Donatzkoa*.)

12. *Mallako* zelaian²⁴.

A) Karatxa. Kate-zulo bat. 1.000 bat kilo.

20 Uriarte eskriturretan, *Uxarte* eta *Uixarte* herriak.

21 *Urquiaga* LABAYRUK; ITURRIZAK *Urquiaga y su accesoria* seinalatzen du.

22 *Goi-Herria* —*Goixerrixe* herriak— *Goitana* auzoko ifar-ekialdeko parteari deitzen zaio. *Donegaray* LABAYRUK, *Donagarai* ITURRIZAK eta *Donai* herriak.

23 Conf. 22. Gaur egun, lurpean edo dago.

24 Bai LABAYRUK eta bai ITURRIZAK *Mallagarai*, *Mallagoia*... aipatzen dituzte. Herriak, ostera, beti *Maille* egiten du.

13. B) Karatxa. Kate-zulo bat. 700 bat kilo.

«Harri txikiak hiru zulo ditu bere gain partean (kate-zuloaz gain). Nork bixkorrago zulatu, exhibizio gisa, eginak izanen dira. *Maille* auzo-une biok hemen probatzen zituzten heuron ganaduok. Domeketan eta holakoetan biltzen ziren. Lotu harria —ganaduok fuertetxamarrak baziren, biok, bata bestearen gainean— eta *Maille-Goiri* birak ematen zizkioten. Buztarri berria probatzeko ere erabiltzen ziren. Gogoratzen naiz nola behin, buztarria zapa-tuan amaitu eta, domekan, probatu genuen. Ez diot, ostera, inoiz inori entzun izan nork eginak edo noiz eginak diren.» (EUSTAKIO MARKINA, 39 urte. Maillagoikoa.)

15. *Palazioko* etxe ostean²⁵.

Karatxa. Kate-zulo bat. 1.300 bat kilo.

(Katea goitik behera barik, albotik albora, trabez, dauka.)

«Nere akordu guztian, hementxe, beti toki berdinean, ezagutu izan dut. Hau ez du inork hemendik mobidu. Ez diot inoiz ere inori entzun izan ez noizkoa ez eta zertarako zen.» (AGUSTIN ORMAETXEA, 50 urte. *Palaziokoa*.)

«Harri hori, gure gazte denbora arteraino, herriko plaza nagusian erabiltzen zen. Harri bi ziren eta hau txikiena. Beste berri eta obeto landutako bat ekarri zutenean, orain dagoen tokira baztatu zuten. Ez dut egundo entzun izan ez nork egina ez noiz egina den.» (JOSE ANDRES ORTUZAR, 82 urte. *Galarrakoa*.)²⁶

16. *Osmako* auzoan²⁷.

A) Gabarroa²⁸. Kate-zulo bat. 1.300 bat kilo.

17. B) Zikoinea. Kate-zulo bat. 700 bat kilo.

«Harri hauek, bereziki txikia, ganaduak hezteko erabiltzen ziren. Baita indarrez zelan zeuden ikusteko ere. Era berean, proba-joku eta apostuak ere ezagutu izan dituk hemen. Bestalde, «trukadak»²⁹ egiterakoan ere, harrioi ganaduak lotu eta probatu egiten ziren. Noiz eta nork eginak diren ez diot inori ere entzun izan.» (JUAN GORROTXATEGI, 51 urte. *Aizpekoa*.)³⁰

25 *Palacio de Amezaga* ITURRIZAK, *Palazixue* eta *Portale* herriak.

26 *Galárraga* LABAYRUK, *Galarraga* ITURRIZAK, eta *Galarra* herriak.

27 *Hosma* LABAYRUK, *Ozma* ITURRIZAK, eta *Ozma* herriak.

28 Ez dut hitz hau AZKUEGAN ikusten. Harri-mueta bat da, hare-harriaren antzerakoa.

29 Diruz ordaindu barik, ganaduak eurak trukatu. *Cambio*, *trueque* dio AZKUEK.

30 *Hosma de Axpe* LABAIRUK, *Ozmaarizpe* ITURRIZAK, *Ozmaizpe* eta *Aizpe* nahiz *Aizpe* herriak.

17. *Bittoitteko* etxaburuan ³¹.

Hare-harria. Kate-zulo bat. 400-500 kilo.

«Ez dut inoiz ere entzun izan *Bittoitten* proba-harririk dagonik.» (EUSEBIO ARREGI, 60 urte. *Galarra*koa.)

«Nere akordu guztian hementxe dago harri hau: ez du inork ere mo-bidu. Aitari entzun izan diot, behin idi batzuk probatzeko erabili zela, eta etxe-aurrera arte bajatu eta berriz altza egiten zutela.» (JOSE MARIA AMUTXASTEGI, 54 urte. *Bittoitteko*.)

18. *Zengoitteko* ermitearen ondoan ³².

Hare-harria. Kate-zulo bat. 900 bat kilo.

«Lehen, ba zela beste bat ere entzun izan dut. Entzun dudanez, jokoren bat zerratu ondoren, galtzeko beldurra zuenak edo, gabaz, kate-zuloan dinamitea sartu eta puzkatu egin zuen. Oraingo hau, buztarriak probatzeko eta horretarikoetarako erabili izan da.» (ZEZILIO AGIRREBEITIA, 43 urte. *Zengoitteko*.)

19. *Aitxuko* proba-harria ³³.

«Proba-harria hemen?... Ez dut egundo holakorik entzun!...» (JUAN GARITAONAINDIA, 43 urte. *Aitxuko*.)

«Ba zen, bai, hemen, harri txikitxo bat. *Gaxtaña-tokixe* deitu parajeen nik ikusi izan dut. Behiak hezteko eta erabiltzen zela entzun izan dut. Ni neuk ez dut inoiz ere mobitzen inor ikusi. Joan dan aspaldian ez dut ikusi ere egin... ez dakit nun den.» (JUAN PEDRO GARITAONAINDIA, 63 urte. *Aitxuko*.)

20. *Areitioko* lautadan ³⁴.

A) Karatxa. Kate-zulo bat. 1.200 bat kilo.

21. B) Hare-harria. Kate-zulo bat. 1.100 bat kilo.

«Bereziki negu partean, denbora libre asko izaten da eta, ganaduak aprobatzeko erabiltzen zuten *Barrenengo* etxe ostean dagoen karatxa. Inoiz entzun izan dut, behi zuzarak ere lotzen zituztela, aupada batzuk egin eta

31 *Bitorita* LABAYRUK, *Bittoitte* herriak.

32 *Cengotita* LABAYRUK, *Zengoitte* herriak.

33 *Arechua* LABAIRUK, eta ITURRIZAK Baiña *Arechua*s ITURRIZAK: *Historia general de Vizcaya y Epitome de las Encartaciones...* t. I, 361 o. *Aitxu* eta *Aitxuek* herriak.

34 *Areitio* LABAYRU eta ITURRIZAK. *Aitxixo* herriak.

ardo trago batzuk ondoren botatzeko. Proba-idiak probatzea, berriz, neure akorduan ere ezagutu dut. Berdin idi berriak erosten zirenean. Nork egina eta noiz egina den ez diot inori entzun.» (EUSEBIO MALLABIABARRENA, 59 urte. *Goenengoa* baserrikoa.)³⁵.

22. *Ariño*ko zelaian³⁶.

«Inoiz entzun izan dut ba zela hor, *Ariño*n ere, harri kaxkar bat, behiak aprobatu eta holakoak egiteko... ez dakit besterik.» (JUAN PEDRO GARITONAININDIA, 63 urte. *Aitzuko*.)

23. *Eskiñadako* harria³⁷.

Karatxa. Kate-zulo bat. 200 bat kilo.

«Holako harri txikitxo bat izan omen zen, bai. Ez dakit nun dagoen... uste dut hormaren batean sartu dutela.» (JULIAN GERENABARRENA, *Goenengoko*.)³⁸

24. *Longako* zelaian.

Hare-harria. Kate-zulo bat. 600 bat kilo.

«Bere lepoan dituen hamalau zulo antzerakoak, palankak errementariarengana zorrozten eraman eta ekarri orduan, ze tankeratan preparatu diren ikusteko egin izanak dira. Harri hau ganaduak hezi eta probatzeko erabiltzen zen. Baita ere idiak probarako gertatzeko. Buztarri berria ondo egina bazen ikusteko ere bai. Ez diot inori inoiz entzun izan ez nork eginak ez noiz eginak diren.» (MARTIN ARRIAGA, 42 urte. *Longazelaiko*.)

«Harria dagoen tokiari *Hareiztia*³⁸ deitzen diogu. *Otsoneri* probea jokatzen genionean, harri horretxekin preparatu genuen gure idia.» (ELIAS ANTIXIA, 56 urte. *Longako*.)

25. *Beñeko* harria³⁹.

Hare-harria. Kate-zulo bat. 600 bat kilo.

«Hare-harria badirudi ere, barruan zikoinea izanen du. Harri hau idiak probarako preparatzeko erabiltzen zen. Neuk ere hori ezagutu dut. Idi erosi-berriak ze estilotan tiratzen zuten ikusteko, probatzen ere erabiltzen zen.

35 *Areitio Genoengoa* ITURRIZAK. *Gunengue* herriak.


36 *Ariño* ITURRIZAK eta berdin herriak ere.

37 *Eskiñada* dietzen diote *Gerengan Eleizburutik* hasi eta *Barrenengora* arteko parte guztiari.

38 *Aitzixe* herriak.

39 *Ibaibarriaga de Arriba* ITURRIZAK, *Beñe* herriak.

ANGEL ZELAIETA



Ganaduak hezteko, osterara, ez zuen balio: aztunegia zen. Ez dut inoiz ere entzun izan ez nork egina eta noiz egina den.» (PEDRO JOSE BARRUE-TABEÑA, 37 urte. *Beñekoa*.)

26. *Koxiñeko* etxaburuan⁴⁰.

Hare-harria. Kate-zulo bat. 300 bat kilo.

«Hogetamar bat arroba inguruko harri kaxkar bat zen. Behiak hezteko eta erabiltzen zen. Kamiño berria egin genuenean, apurtu eta azpian sartu genuen.» (JUSTINO BAZTERRETXE, 75 urte. *Koxiñekoa*.)

27. *Galarregiko* zelaian⁴¹.

«Lepoan zatitxo bat falta zaio. Zelai hontan, oraindiok oraintsura arte, erromeria egiten zen. Gainera, lehenagoko mando bidea ere hemendixek pasatzen zen. Normala, bada, honako tokian aprobada egitea.» (JULIAN ZELAIETA, 40 urte. *Trabakukoa*.)

«Gure gazte denboran proba asko jokatzeko ziren zelai hontan. Baina, asko! Erromeria ere hementxe egiten zen eta gaztedi asko biltzen zen. Idi-probak eta gizon-probak egiten ziren. Mando-bidea hemendixek pasatu arren, ez nuen mandorik harri honeri lotzen ikusi... bai *Trabaku Zabarreko* harriari.» (DAMIAN ZELAIETA, 79 urte. *Trabakukoa*.)

Taularen azalpena

Mallabiak 23,39 kilometro karratu ditu⁴². Iturrizak, osterara, XVIII Ign. gizaldiaren bukaeran, honetara dio: «tiene su jurisdicción legua y media de longitud, una de latitud y cinco de circunferencia»⁴³.

Lur-alde guzti hau ez da labratzen, jakina. HERMANDAD SINDICAL DE LABRADORES Y GANADEROS elkarteak dioskunez 415 hektarea dira labratzen direnak. (Labratutako lur bezala jotzen ditugu landak ere; oraintsu arte, izan ere, asko soloak izan baitira.)⁴⁴

Kontu izan behar dugu, baita ere, errejistratutako harriez gainera, gehiago ere izanen zirela, seguru asko. Bestalde, *Ariño*ko harria ez dugu kontatu ere egiten, ez baitakigu notizia zihurrik.

40 *Goxiñakua* ITURRIZAK. Ez da ondo bereizten *Koxiñe* ala *Goxiñe* esaten badu herriak.

41 *Galarrei* herriak.

42 SALVAT, *Diccionario Enciclopédico Salvat*. Barcelona, 1972.

43 ITURRIZA, *Historia General de Vizcaya y Epítome de las Encartaciones*. Bilbao, 1967. 1.º tomoa, 360 o.

44 Dato hauk ez dira oraindik publikatu. Ahoz emen zaizkit.

ANGEL ZELAIETA

Honerara, bada, taula hau jarraiko dato hauekin argi genezake:
ITURRIZAren neurrietan, 17,33 harri legoa karratuko.
SALVATen neurrietan, 1,087 harri kilometro karratuko.
Labratutako lurrei bagagokie, 6,26 harri kilometro karratuko.

Ondorenak

1. *Antiguetatea.*

Informante batek ere harriok noiz eginak diren ez dakienez, eta informateok, asko, 80 urte ingurokoak izan, tradizio oralez behintzat, ezin dugu jakin noiztikoak diren. Beraz bada, usadio benetan zaharrekoak dira.

2. *Funtzionalidadea.*

- 2.1. Sal-erosketa eta trukadetan ganaduak, bereziki idiak, probatzeko.
- 2.2. Buztarri berriak egiterakoan, idien adarretan, egin ala, probatzeko.
- 2.3. Ganaduak hezteko: ez bakarrik buztarritik tiratzeko, baita ere bideetan... ganoraz ibiltzen ikas zezaten.
- 2.4. Entretenigarri ere bai, negu partean batez ere.
- 2.5. Baita ezibizioak egiteko ere, nok ganadu obeagoak dituen demostratuaz.
- 2.6. Finalidade terapeutiko edo prebentiboa: behiak izorra geldi zitezten.
- 2.7. Azkenez, ganaduak, idiak batez ere, desapio edo apostuetarako preparatzeko.

3. *Egoera.*

Gaur egunean, oster, harriok ez dute horrelako finalidaderik. Asko apurtu eta galdu egin dira. Eta, gutxi, edo baterez, erabiltzen direnez gero, jendeak gero eta gutxiago ezagutzen ditu.

4. *Propiedadea.*

Harriok ez dira pribatuak, hauzoarenak baino, Leonzio Urizaren testigantzak dion bezala.

Amaia

Estudio hau, ezer baino gehiago afezioz egin izan dudanez, ez da, agian, teknikoegia izanen... Behar bada, obeago batzuk egiteko hasera bat izan da-

teke —eta lehenbaitlen egitea komeni da, harriok eta beroien funzioa aztuaz dijoa eta—.

Azterren hau ere, gure aurretikoen bizimodua ezagutzeko argigarri bat delakoan nago, aberatsena ez bada ere, beste bat bederen.

II. MITXELENA ETA GAVEL JAUNEI ERANTZUNEZ

Mitxelena eta Gavel jaunek ba dute honako kezka bat, jarraiko texto honetan ikusten dugunez: «Gavel (Ph. b., 77), fundándose en el ap. *Recarte*, var. de *Recart(e)*, *Errecart*, se inclina a pensar que *aurte* fue la forma primitiva de *arte*. La reducción de *au* a *a* en sílaba inicial no tiene nada de extraño. Podría pensarse entonces si el elemento *aurten-* que aparece en una serie de apellidos vizcaínos (*Aurtenechea*, *Aurtengoechea*, *Aurteingoa*, *Areitioaurtena*, *Areitiourtena*, etc.) no será un derivativo (superlativo *-en*) de *aurte*»⁴⁵.

Mallabian ba dira etxe bi *Aurtein*⁴⁶ eta *Aurtenetxea*⁴⁷ deitura dutenak. Bata *Gerena*⁴⁸ auzoan dago, *Goenengoa*⁴⁹ eta *Barrenengoa*⁵⁰ deitura duten etxeen bitartean. Bestea, berriz, *Beranoko* auzoan (*Berano Txikian* konkretuago), *Beranogoitia*⁵¹ eta *Barrenetxea*⁵² etxeen bitartean. Baina gehiago ere ba dago oraindik seinalagarririk: joaten bagera *Beranoko Aurtenetxera*, beronen aurreko karan letrero hauxe irakurriko dugu: *Velano*⁵³ *de medio seré. Edificó por Marquina 1822*».

45 MICHELENA, Luis, *Apellidos Vascos*. San Sebastián. Ed. Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo". (2.ª edición), 1955. 52 o.

46 *Aurtena* ITURRIZAK, *Aurteñ* eta *Geri-aurteñ* herriak.

47 *Aurtenechea* ITURRIZAK, *Aurtenetxie* eta *Beranoaurtenetxie* herriak.

48 *Gerie* herriak. Dokumentu guztietan *Gerena* agertzen da.

49 *Guerena Goenengoa* ITURRIZAK, *Gumengue* eta *Gerigunengue* herriak.

50 *Barrenengoa* ITURRIZAK, *Barrenengue* eta *Geribarrenengue* herriak.

51 *Berano Goitia* ITURRIZAK, *Beranogoittize* herriak.

52 *Berano Barrenechea* ITURRIZAK, *Barrenetxie* eta *Beranobarrenetxie* herriak.

53 Honetara, arazo bat gargitzen da: Mitxelena eta Gavelén kezkek, alegia, baina beste bat hiluntzen: gure ustez *Velano* nahiz *Berano*, parte bi dituen antroponimo bat da. Parte horiek *-ano* eta bestea dira. Baina "beste" hau zein ote da? *Berius* ala *Belea*?

ANGEL ZELAIETA

III. MALLABITIK AVILARA

Orain dela hogei bat urte, jarraiko hauxe entzun nion Mallabiako PEDRO ARRIAGA jaunari:

Larrak, hiru urte;
hiru larraldi, txakurraldi;
hiru txakurraldi, behorraldi;
hiru behorraldi, gizonaren gizaldi.

Geroago, 1974.eko Aste Santuan, beste honako hau entzun nion Avilako El Herradón de los Pinares herrixkan ANGEL CEA, 75 urteko gizonari:

Tres años vive el milano,
tres milanos vive el perro,
tres perros vive el caballo, y
tres caballos vive su dueño.

Ez dakit ala Mallabitik Avilara joan bada, ala handik honera etorri bada, ala biotara beste nunbaitetik etorria den.

Angel ZELAIETA

SOBRE LA FUNCIONALIDAD DE LAS PIEDRAS DE ARRASTRE

Frecuentemente había observado que junto a grupos de tres o cuatro caseríos, existían unas piedras de arrastre, toscas, cuyo peso podría oscilar entre 200 y 1.000 kilos. Por ello, es decir por esa presencia tan constante, surgió en mí la curiosidad por conocer la razón de ser de dichas piedras. No encontré, sin embargo, ningún estudio sobre las mismas, aunque sí sobre las competiciones que, sobre todo modernamente, se celebran en las plazas públicas. Así pues, decidí irme de casa en casa, con objeto de conocer de labios de los habitantes mismos del lugar la posible utilidad de dichas piedras.

Elegí, para ello, un pueblo —Mallabia, en Vizcaya—, aunque la realidad aquí recogida será, seguramente, análoga en cualquier pueblo de la Montaña navarra.

Buscaba, en este intento, la información que me pudieran facilitar los hombres de más edad. Por las informaciones que me facilitaron, he podido concluir lo siguiente:

1. Hoy no son usadas dichas piedras, y aseguran que antes existían otras más que ahora han desaparecido.
2. De cualquier forma, todavía hoy pueden contabilizarse más de una piedra por kilómetro cuadrado (montes incluidos), cantidad que ya de por sí habla de su importancia.
3. Unas son areniscas y otras calizas, con un orificio por donde uncirlas, pero sin ningún agarradero.
4. Su razón de ser, según me informaban, debió ser totalmente funcional como es:
 - a) La doma del ganado de tiro.
 - b) La doma del ganado, con el fin simple de ser domesticado.
 - c) La prueba del yugo nuevo.
 - d) La posible valía del ganado, bien cuando se compra o bien cuando se vende.
 - e) Para uncirla a la misma vaca recién apareada, con el fin de que quede ciertamente preñada.
5. Poseía también fines lúdicos, como eran:
 - a) Las competiciones y exhibiciones en las reuniones de las Hermandades de Ganaderos.
 - b) Entrenamiento para concursos y desafíos de arrastre de piedra, bien fueran en el mismo barrio o en la plaza pública.

Mientras realizaba esta investigación, me encontré con un dato de sabiduría popular, cuya versión castellana la he oído a varios cientos de kilómetros, en Avila; dice así la versión abulense: Tres años tiene el milano, tres milanos tiene el perro, tres perros tiene el caballo y tres caballos tiene su dueño.

También encontré un dato de toponimia que, según parece, puede arrojar alguna luz a una hipótesis abierta por Gavel: «aurte» es la forma arcaica de «arte», ya que en dicho pueblo existen dos caseríos que están «arte», es decir «entre» dos casas, y son denominados «aurtenetxe».

